



ALDUNDIAK ESKOLA KIROLA ETA FEDERATUTAKO KIROLA BERTAN BEHERA UTZI DITU

Harkaitz Millan: "Sortutako egoera ikusita, beharrezkoa da zuhurtasun irizpide bat mantentzea eta eskolaren esparruan hartutako prebentzio neurriekin koherenteak izatea".

Eskola kirolen eta kirol lehiaketan bideragarritasunaren inguruan sortu diren zalantzak ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak eskola kirola (lehiaketak eta entrenamenduak) eta federatutako kirola etetea erabaki du. Erabaki hau Gipuzkoako kirol federazioei eta entitateei jakinarazi zaie gaur goizean helburu honekin ospatu den bileran

Eskola-kirolako jarduerak etetearen erabakia hezkuntza zentro guztietan eskolak etetearen erabakiaren bat dator; zentroen parte-hartze unibertsala eta homogeneoa ezin ziurtatu daitekeen egoera izanik, lehiaketak aldatuko lituzkeelako. Bestalde, oinarrizko zuhurtasun irizpideak ere hezkuntza zentroi proposatutako neurriarekin bat etorritik jokatzeko komenigarritasuna adierazten du, prebentziozko osasun neurriak aplikatuz eskola ingurunearekin parekagarriak direnak. Zuhurtasun eta koherentzia irizpide bera aplikatu zaio kirol federatuari, eta hori horrela, dagokien federazio nazionalen hartutako erabakia Gipuzkoako lurraldean eta kategoria guztietan ere aplikatzearen komenigarritasuna ikusi da; kadeteak, Kultura eta Kirol Sailaren menpe daudenak, barne.